

ATZEKO PLAZAREN ERABILERA

Joan den astean atzeko plazaren Mankomunitatearen bilera egon zen. Bertan bizi garen laupabost elkartekidek parte hartu genuen. Administradoreak plazako molestien gaiaren planteamendua egin zuenean ondo bideratu zuen hasieratik, gu ere jabedunak garela esanez eta dena legala eta ondo dagoela eta gurekin harreman ona duela eta guk beti erantzun diegula eta gure arrazonamenduak modu koherente batean erantzun diegula esanez. Ondoren pare bat auzokidek (elkartekideak ez direnak gainera) ondo hitz egin zuten gutaz eta orokorrean bilera oso errespetuosoan izan zen, eta txokoaz aparte beste hainbat gauzetaz hitz egin zen.

Laburbilduz

- 1- Umeak futboleko jolasten badute, ez dadida larruzko baloiarekin izan mesedez, larruzko baloiaren kolpeek nahiko oihartzun eta dardara sortzen omen dute, eta pisu bajuetan bizi direnei molestiak eragiten dizkiete.
- 2- Gurasoak kanpoan gaudenean gorde kolillak eta neurtu elkarrizketen bolumena. Gaueko hamarretatik aurrera itxi atzeko atea eta ez erabili plaza. Erretzera irten ezkerreko atera hautsontzia eta baju hitz egin mesedez.
- 3- Umeak kanpoan daudenean kontrolatu momentu oro eta plaza erabili ondoren, zikinkeria utzi badute, batu.

Konpromiso hauek erabat zentzudunak iruditzen zaizkigu eta bete beharrekoak mesedez.

